



Erdi Aroan murgilduko dira Txanpontxo jaiak

Etxeko lanak eginda iritsi dira maiatzera Bidebietan, eta egitarau zabala ondu du auzo elkarteak Txanpontxo jaietarako. Ostegunean lehertuko da festa Guardaplata bidean, eta bizilagunek jardueraz beteriko lau egun izango dituzte aurretik, festa giroan murgiltzeko.

T & A_Olatz Balda Sagarazazu

Bidebietako egutegietan gorritz boroilduta dituzte maiatzeko hainbat egun, eta egunotan, seinalatutako data horien atzera kontaketa egiten ari dira asko. Urtebeteren ostean, bueltan dira Txanpontxo jaiak, eta Bidebietan, nerbioak dantzari ditu batek baino gehiagok. Urteroko moduan, jai batzordeak auzoko hainbat eragilerekin batera sortu du egitaraua, hilaren 9tik 12ra bitarte asperitzeko tarterik izan ez dezaten auzoan.

Ohi bezala, Txanpontxoren jaitsierarekin abiatuko dituzte jaiak Bidebietan. Erraldoi eta buruhandiak alboan dituela jaitsiko da jaietako ikur nagusia, Guarda-

plata bidetik. Hortik aurrera, lau eguneko festak ez du etenik izango; otordu herrikoiak, puzgarriak, emanaldiak, jubila-tuentzako jarduerak, mozzorro festak eta herri kirolak ez dira faltako auzoan.

Berritasun gisa, Erdi Aroko feria izango dute estreinakoz: «Sare sozialen bitartez jarri ziren gurekin harremanetan, eta jaietarako ideia aproposa zela iruditu zitzaigun», azaldu du Izaskun Cruzek, jai batzordeko kideak. Hala, poliester xaflekin egindako ezpatekin borrokatzen erakutsi diete haurrei eta benetako ezpaten erakusketak izango dituzte Allende parkean, larunbat goizean. Eguerditik aurre-

ra, berriz, bosgarren blokean (Serapio Mujika, 33) arituko dira profesionalak, ezpatekin borrokan, Erdi Aroko gerlarrien gisan.

Larunbat arratsalderako ere aldaketekin datoz jai batzordetik, izan ere, gau partean nagusi den mozzorro festa eguneko bi unetan banatuko dute: «Gauean egin ohi dugu, baina beranduegi da haur askorentzat, eta horregatik arratsaldean ere halako bat egitea erabaki dugu», azaldu du Ruben Fernandez jai batzordeko kideak. Aurtengo gaia, Heavya izango da eta haur zein helduak gai horren baitan hurbildu beharko dira mozzorro lehiaketetara: 19:00etan egingo dute txikienean, pilotalekuan, eta ordubete beranduago hasiko dute festa koxkortuek bosgarren blokean.

Auzoko sormena nagusi

Berritasun gutxi dituzten arren, aurreko urteetako jarduera arrakastatsuak mantenduko dituztela baieztatu dute kideek. Hala, Sagardo Eguna ospatuko dute beste behin: «Harrera ona izan zuen iaz, eta jendea animatu zela ikusita, aurreko urtean hainbat postu jarriko ditugu igandean sagardo eta pintxoekin», azaldu du Cruzek.

Era berean, urteroko patata tortilla lehiaketa, kuadrillen jaitsiera, danborrada herrikoia eta zezensuzkoa mantenduko dute. Eguzkia jaisten denean ere, gorputzak mugitzeko giroa ez da faltako: larunbat eta igandean DJak izango dituzte, eta ostiralean Txanpontxo Rock jaia ospatuko dute hamalagarrenez; Oihu, Mindtrap, Yakovlev 42, The Tragos eta Club de Los Poetas Tuertos taldeak izango dituzte bosgarren blokeko oholtza gainean: «Instagram bidez iritsi zaizkigu proposamen guztiak eta pozgarria da, gehienak auzokoak direlako».

Musika giroan ez ezik, jaietako beste jardueretan ere izango dira auzoko artistak. Jai batzordeko kideek azaldu duteenez, bizilagun bat haurren aurpegi margoketa egitera «animatu da», eta jai batzordeko kide den Enara Sañudok egin du aurtengo kamisetaren diseinua: «Aurreko urteetan bezala, moztarro festaren gaiarekin sortu dugu aurtengoa, Txanpontxorekin, baina heavy erara.

Txikitik sortuta

Bidebietan, festarako gogoia nagusi den moduan, nabarmena da lagun talde txiki baten etengabeko mugimendua. Azken egunetan lotu beharreko ari mutur mordoa dute, baina gertuago ikusten dute urte hasieran abiatu zuten prozesua: «Oraindik egitarauaren etxex etxeko banaketa egin behar dugu, eta, ondoren, dekorazio guztia jarri», azaldu du Fernandezek.

Aurten, lau lagun aritu dira buru-belarri jaien prestaketa lanetan, eta onartu dute inguruko elkarten laguntza ezinbesteko dutela, batik bat, bazkari eta afari handien prestaketarako: «Guk ezin ditugu 60 edo 80 pertsonentzako otorduak prestatu, ez dugu lekuri eta ez gara hainbeste».

Hain zuzen, jai batzordeko kideen kopuruak sortzen du erronka nagusia auzoan: «Beti hiru eta bost lagun artean gara, eta ez dugu erreleborik». Diotenez, inguruko asko jaietan laguntzeko asmoarekin gerturatzen dira, baina inork gutxi du urte osoan zehar jaiak antolatzeke prestutasuna: «Jaiak egitea nahikoa motibazio izan beharko litzateke, baina ez da hala, eta pena bat da».

Egitaraua

MAIATZAK 9, OSTEGUNA

17:30etan, Guardaplata bidetik:

Txanpontxoren jaitsiera erraldoi eta buruhandiekin Jaixkipe txarangaren konpainian.

18:30etan, Bidebieta parkean:

Eskulanak haurtxokoaren eskutik.



19:00etan, hamargarren bloketik:

Txanpontxoren pregoi irakurketa eta kuadrillen jaitsiera Joselontxos txarangarekin.

22:00etan, Bidebieta elkartean:

Saltseroentzako afaria. 13€. Txanpontxo 2024 kamiseta ekarrita doan!

MAIATZAK 10, OSTIRALA

17:00etan, Guardaplata bidetik:

Erraldoi eta buruhandiak Parrandango trikitilariarekin.

17:30-19:30, Allende parkean:

Haur eta gazteen eguna: barredora, multioztopoak, kermessa...

18:30etan, jubilatuetxan:

Ilaran egindako dantza erakustaldia.

19:00etan, Allende parkean:

Txokolate jana.

19:00etan, jubilatuetxan:

Areto dantza erakustaldia.

19:30etan, jubilatuetxan:

Jubilatuaren miss eta misterra, irabazleentzako sariarekin.

19:30etan, Alai tabernan:

Helduentzako billar lehiaketa.

20:00etan, bosgarren blokean:

Afari herrikoia, paella.

Bideberri institutoko musika eskolako ikasleen emanaldia.

22:00etan, bosgarren blokean:

Txanpontxo Rock XIV: Oihu, Mindtrap, Yakovlev42, The Tragos eta Club de los poetas tuertos.

MAIATZAK 11, LARUNBATA

Aurtengo gaia: Heavy.

09:00-21:00:

Haur marrazkiak. Eraman zure marrazkia Eroskira eta sorpresatxo jasoko duzu!

10:00-13:00, Allende parkean:

Erdi Aroko feria. Ezpata eta bestelako enbata erakusketa eta azalpena.

10:30etan, Bidebieta parkean:

Askatuak saskibaloia taldea, saskibaloia guztientzat.



11:30etan, Bidebieta parkean:

Apar festa.

11:30etan, Peña Taurina kanpoaldean:

Patata tortilla lehiaketa.

12:00etan, Guardaplata bidetik:

Erraldoi eta buruhandiak Taupada batukadarekin.

12:00etan, Bloke 10en:

Kantujira.

12:30etan, Peña Taurinan:

Pintxopote.

12:30etan, Bloke 5en:

Konbateak Erdi Aroko ferian.

Txanpontxo jaiak



13:00etan, jubilatutxoan:

Udalaren eskutik 80 urtekoei banda banatzea.

14:00etan, jubilatutxoan:

80 urtekoen bazkaria.

14:00etan, bosgarren blokean:

Bazkari herrikoia, oilaskoa.

15:00etan, bosgarren blokean:

Bingo musikatua.

17:00etan, Peña Taurinan:

Mus txapelketa azkarra.

17:30etan, seigarren blokean:

Danborrada herrikoia Jaixkipe txarangarekin.

17:30etan, frontoian:

Pausa ikuskizuna, adin guztietarako.

18:00etan, gaztelekuan:

Txanpontxoren txapak eta pinak eta TxokoTxurrolatada gazteentzat.

19:00etan, frontoian:

Txikientzat disko festa eta mozorro festa. Mozorro hoberenari saria.

19:00etan, San Francisco Jabier elizan:

Meza.

20:00etan, frontoian:

Helduentzako mozorro festaren hasiera.

21:30etan, bosgarren blokean:

Zezensuzkoa.

21:30etan, bosgarren blokean:

Mitx DJ-a eta Iker Rodriguez.

23:30etan, Bloke 5en:

Mozorro lehiaketa.



MAIATZAK 12, IGANDEA

09:00etan:

Diana udal txistulariekin.

10:00etan, Allende parkean:

Puzgarriak.

11:00etan, bosgarren blokean:

Euskal dantzak, Herri Ametsa ikastolaren eskutik.

11:00-15:00:

Sagardo Eguna (Riojano, Aloha, Nueva York, Guardaplata eta Txiki tabernetan).

12:00etan, Allende parkean:

Apar festa.

12:00etan, Erreka tabernan:

Toka eta bote txapelketa mistoa.

12:00etan, jubilatutuen etxean:

Jubilatuentzat luntxa.

18:00etan, bosgarren blokean:

Herri kirolak.

Aizkolariak:

- Manolo Cañabares.

- Markel Iturralde eta Bea Tanco.

Harri jasotzaileak:

- Xabat Olaizola eta Aingeru Perez.

19:00etan, bosgarren blokean:

Sardina jate herrikoia.

19:30ean, bosgarren blokean:

Jo Ta Txo DJ-a.

22:00etan, bosgarren blokean:

Bidebieta argituko dugu Txanpontxori agurra emateko.



MAIATZAK 13, ASTELEHENA

Egun osoan zehar:

Haurren eguna. Egun osoan zehar atrakzio guztiak 1,5€.



Gora Txanpontxo jaiak!
OSASUNEAN INBERTITU!

FISIOTERAPIA

- TERAPIA MANUALA
- TERAPIA LINFATIKO INTEGRALA

Juan XXIII.aren pasealekua, 6, 20016 Donostia · Tel.: 696-92 41 54 